

POLIZIAREN GEHIEGIKERIAK FRANTZIAKO AUZO TXIROETAN

Frantziak begiratu nahi ez duen arazo potoloenatarikoa da hiri inguruetakoko egoera. Bazterketa geografikoaz gain, diskriminazio soziala, politikoa eta ekonomikoa dute eguneroko ogi bertakoek. 50eko eta 70eko hamarkaden artean eraikitako auzo horietan, etorkinak eta Frantzian sortu haien ondorengoak dira nagusi. Poliziaren gehiegikeriek giroa jasangaitza bilakaturik, sutan jartzen dira erregulariki. Soluzio politikorik ez denez ematen, jazarraldien zerrenda luzatuz doa.



Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa_B

Sutan jartzen dira, haserreak sustaturik. Ez da ordea irudia: sugarrek hartzen diote gaina gauaren ilunari. 1979an izandako lehenetik, aurtengo otsaileko azkenera arte, Frantziako hiri inguruetakoko jazarraldi guztiek dute oinarri bera: bazterketa sozio-ekonomiko politikoa eta poliziaren gehiegikeriak. “Enplegua, etxebizitza, hezkuntza ala beste, egoera kaskarra pairatzen dugu, baina guzti horrek oinarri bera du: arrazismo estrukturala dago Frantzian”, dio Louisa Yousfi arrazismoaren aurka dabilen gazte militanteak.

Historia errepikatuz doa. Laurent Mucchielli soziologoak argi dauka: “Hutsegite bat da jazarraldiak delinkuentziaren esparrura mugatzea; bai, ekin-tza delinkuenteak burutzen dituzte, baina ez da hori bakarrik”. Konpondu gabeko hainbat arazo daude oinarrian. Botere politikoen partetik egoera hobetzeko nahikari politikorik ez du sendi. “Aurrekontuei begiratuz gero argi gertatzen da ez dela lehentasunetan”.

Botere politikoen partetik ez bada, hiri inguruetakoko gazteen partetik sendi du aldaketa Yousfik. 2005az geroztik poli-


tikoki antolaturik, jazarraldi geroz eta gutxiago eta manifestazio zein kolektibo gehiago daudela dio. Ez da iritzi berekoa Mucchielli: “Ez naiz hain baikor, male-ruski ez dut hainbeste antolaketa politikorik sendi”. Polizia kontrol batetik ihesi, elektrika-gune batera sartu eta elektrifikaturik hil ziren 2005ean Paris ondoko Clichy-sous-Bois auzoko Zyid Benna eta Bouna Traoré. Auzoan hasi eta Frantziako beste hiri inguruetara hedatu ziren hiru astez iraundako jazarraldiak. Hase-rra areagotu egin zen hirugarren egu-nean, poliziak negar gasezko granada bat auzoko meskita barnera bota zue-nean. Gibeletik zituzten poliziak hobengabetzat jo izan dira. Auzitegian, polizia zuriaren hitzak sistematikoki auzokoen hitzari gaina hartzen diola deitoratu ohi du biktimen senideek osatu *Urgence, notre police assassine* (Presa handia bada, gure poliziak erailtzen du) kolektiboak.

Hamar urtez, 47 herritar poliziak hilik

Poliziaren gehiegikeriek sua pizten segitzen dute. Azkenak, aurtengo otsailean, poliziak Théo Luhaka gaztea atxilotu eta

bortxatu izanaren ondorioz. Itxuragatiko kontrolak dituzte jasangaitzak. Poliziaren partetik, beltz ala beltzaren batek zuri batek baino zortzi aldiz gehiago kontrol ukaiten ditu Frantzian. Kontrol horiek eragin “umiliazioa” aipatzen dute Yousfi zein Mucchiellik. Krimenen aurkako BAC brigada hurbiletik segitu duen Didier Fassin antropologoak hiru joera ondorioztatu ditu: atxiloketa arbitrarioak, izariz kanpoko neurriak eta praktika laidogarriak.

Poliziaren gehiegikerien puntu gorena izaten dira hilketak. Azken hamar urteetan 47 izan dira. Zenbaki horren berri eman zuen maiatzean *Streetpress* komunikabide paristarrek. Ez du polizia bakar batek kartzelan bukatu: hiru, gibelape-nezko zigorrekin atera dira epaitegitik, hamasei hobengabe ekarriak izan dira, eta hogeita zortzi epaitzen edo epaitze-koak dira. Poliziaren alorra erreformatzeko beharra ikusten du Mucchiellik. 1997an osatu gobernu sozialista saiatu zen, hurbileko polizia jarritz. Baina, sektoreko buruek laster blokeatu zuten erreforma. Soziologoaren hitzetan,





“Frantzian ez dugu patruilan ibilki, herritarrekin solasean dagoen polizia-rik. Auzoetara doaz gudu zelaira doazen gisa”. Hori erranik, jazarraldien lehen arrazoiak “mendeku gogoa” dela dio.

Ghetto bihurtzea

Urbanizatzeko politikariak lotua da egoera. Hain zuzen, hiri inguruak benetako ghettoak direla salatzen du Yousfik. Ez da konparaketa hori egiten duen bakarra; duela bi urte, Lehen ministro zela, Manuel Vallsek berak “apartheid territorial, sozial eta etniko” gisa definitu zuen egoera.

Bigarren Mundu Gerlaren biharamunean, Immigrazioaren Erakunde Publikoa sorturik, beste herrietako (Italia, Portugal, Maroko, Aljeria...) langileen etorrarazteko politika martxan jarri zuen Frantziako Gobernuak, modernizazio politika gauzatzeko. Atzerritik eta baserrietatik jindako biztanleria hori aterpetzeko eraiki zituzten *grands ensembles* (multzo handiak) deitu auzoak. Logika: ahal bezain fite ahal bezainbat apartamentu eraikitzea. Elkarri segi

dote eraikinekin, usu karratu hetsi bat osatzen dutela. Ehunka eta milaka apartamentu, elkarren gainean metaturik. Hiriek dakarten zerbitzu-erakundeak bazter.

Apartamentuetan ur beroa eta komunak eskainiz, hastapenean modernizazio kutsua bazuten ere, kritikak agertu ziren laster. Andeatzen hasi ziren bizitokiak. Sarcelles auzoko biztanle batek asmatu *sarcelite* nozioarekin bertakoen depresio eta neurosi sentimendua salatzen hasi ziren. Kritikak kontuan hartuz eta segregazioa txikitzeko xedez, hirigintzarako politika abiatu zuten bote-
re publikoek 60. hamarkada bukaeran. Dorreen eraikuntza 1973an gelditu eta bizitegi pribatuaren eraikuntza sustatzen hasi ziren. Laguntzaz baliaturik, multzo handietatik partitu ziren anitz. Baina, biztanleriaren zati prekario eta pobreenak ezin izan zuten. Bertan gelditu ziren, miseria ekonomikoaz gain miseria sozialean. Giro arrazistaz inguratutik, isiltasuna hautsiz, bertan gelditutakoen umeei zuten egoera salatzeko pauso politikoa eman. Bigarren belaunaldia deitu ohi direnek.

» Lehen ministro zela, Manuel Vallsek berak “apartheid territorial, sozial eta etniko” gisa definitu zuen egoera

» Poliziaren partetik, beltz ala beltzaren batek zuri batek baino zortzi aldiz gehiago kontrol ukaiten ditu Frantzian

“Frantzian ez dugu patruilan ibilki, herritarrekin solasean dagoen polizia-rik. Auzoetara doaz gudu zelaira doazen gisa”, dio Laurent Mucchielli soziologoak.

1979: lehen jazarraldia

Jazarraldiak ziren tresna bat. 1979 urteko irailean izan ziren lehenak, Lyoneko Grappinière hiri inguruan. Auto lapurretak leporatzen zitzaizkion Akim gaztetxoa atxilotzeko eta Frantziatik kanporatzeko sartu zen auzora polizia, irailaren 15ean. Polizia gibeletik zuela, zainak ireki zituen. Odola dariola zuela, eskuburdirak jantzirik eraman zuten, auzoa sutan utziz.

Aldarria ozenago entzunarazteko, *Berdintasunaren aldeko eta arrazismoaren aurkako martxa* burutu zuten 1983an. Ospitale batetik, poliziak tirokatu Toumi Djaidja gaztearen ahotik atera zen deia. Marseillatik hamar bat lagun abiatu eta ehun mila batu ziren Parisko azken kilometroetan. Urte horretan hiltze arrazista andana izan zen: Barne ministerioaren arabera, bost; aldiz, Arrazismoaren aurkako taldeen arabera, hogeita bat. Gaur egun, martxa horiek segitzen dute. Azkena aurtengo martxoaren 19an egin zuten. Bigarren belaunaldiak ez, baina bai hirugarrenak, ez bada laugarrenak bultzaturik. ■